

KARABIN KARABAN. Mundura ematen duen leiho bat



Partaidetza eta
gizarte ehuna



Errespetua eta
inklusioa



Herritarren partaidetza
eta enplegua



Komunikazioa
eta informazioa



Gizarte eta osasun
zerbitzuak

KARABIN KARABAN. Leiho bat mundura zabalik

KARABIN KARABAN ekimena konfinamenduaren garaian sortu zen, oso egoera desberdinetan zeuden herritarren bizipenak partekatzeko eta, aldi berean, konfinamenduan gizarte kohesioari eusten laguntzeko helburuarekin. Horren bidez, Aniztasun eta Bizikidetza Mahaiaren jarduerari eutsi nahi izan zaio, eta gainerako herritarrei ezagutarazi. Halaber, etxetik atera gabe beste pertsona eta errealitate batzuk ezagutzeko aukera eskaini nahi izan zaie herritarrei.

Proiektua Urretxuko Udaleko Gizarte Zerbitzuen Arloko Aniztasun eta Bizikidetza Mahaian sortu zen, eta adin eta errealitate guztietako herritarrek hartzen dute parte. Gainera, podcast formatuan eta YouTuberen eta Udaleko sare sozialen bitartez zabaldu da.

Bost ataletan banatuta dago, eta hainbat gai lantzen ditu, hala nola immigrazioa, bakardadea, hainbat patologia psikiatriko, mendekotasuna, zahartzea, COVID-19a bera gaixotasun gisa, elkartasuna eta distantzia, konfinamendua ildo nagusitzat hartuta.

Askotariko pertsonen bizipenak dira: adinekoenak, Urretxura iritsi berri direnenak, seme-alabekin gela bakarrean bizi direnenak, senideak preso dituzten eta haiek bisitatzeraz joan ezin diren pertsonenak eta adinekoekin, mendekoekin edo patologia psikiatrikoak dituzten senideekin bizi direnenak, bai eta etxez etxeko arretako langileenak, osasun langileenak, bakarrik bizi diren pertsonenak eta askotariko errealitateak ezagutzen dituen parrokoarenak —testigantza zuzenean eskaini duten pertsonak dira—.

Irrati programa modu irekian eta doan zabaldu zen, eta 1.850 entzule baino gehiago izan zituen (6.800 biztanleko herri batean). Hori dela eta, Mahaiak bigarren denboraldi bat planteatu du, Mahaiaren bileretan lantzen diren gaiak aztertzen jarraitzeko. Horrela, beraz, Aniztasun eta Bizikidetza Mahaiaren tresna eta baliabide bihurtu da.

Gainera, orain arte emandako programak YouTubeko kanalean biltegitratuta geratu direnez gero, lanerako material gisa erabil daitezke, bai Mahairako, bai beste ekimen batzuetarako, hala nola nagusien etxerako, Udaleko eguneko zentrorako, «Urretxun bizi Gara» harrera eskolarako, ikastetxeetarako eta abar.

Proiektua Aniztasun eta Bizikidetza Mahaiak kudeatu du. Urretxuko Udalak sortu zuen eta haren babesa jasotzen du, baina beste edozein udalerritara transferi daiteke.

1. Erakunde sustatzaileak

Urretxuko Udala eta Aniztasun eta Bizikidetza Mahaia

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

Herritar guztiei zuzendutako proiektua da, eta modu irekian eta doan zabaldu da sareen bitartez. Horri esker, xede taldea zabaldu egin daiteke.

4. Lurralde eremua

Tokikoa eta nazioartekoa

5. Egoera

Amaituta Hasiera data: 2020ko martxoa. Amaiera data: 2020ko maiatza.

6. Etiketak

Lagunkoitasuna, bakardadea, arreta eta zainketak, mendekotasuna, COVID-19a, zainketak, aniztasuna, akonpainamendua, hurbiltasuna, belaunaldiartekoa, Gipuzkoa

7. Helburuak

Helburu orokorra honako hau da: gizarte kohesioa sustatzea eta, horretarako, errealitate desberdinak bizi dituzten herritarren bizipenak partekatzea.

Honako hauek dira helburu espezifikoak:

- Adinekoen gizarte partaidetza sustatzea eta, era horretan, errazago jasan dezaketen isolamenduaren arriskua —konfinamenduak areagotua— saihestea.
- Konfinamenduaren garaian aniztasunak bizikidetzan betetzen duen zereginaren ikuspegi positiboa sustatzea.
- Aniztasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan funtsezkoak diren eragileek gaikuntza sendotzea, eta gizarte isolamenduko egoera batean eragile horiek aktibo edukitzea.
- Diskriminaziorik eza bultzatuko duten topaketak (birtualak) egiteko eta parte hartzeko guneak sustatzea.

- Konfinamendua gorabehera, bizikidetzan eragin negatiboa izateagatik Urretxuko Aniztasun eta Bizikidetza Planean identifikatutako aldagaien inguruan lanean jarraitzea.

8. Metodologia

1.- PLANGINTZA

- a. Proiektua berehala jarri behar izan zen abian, eta oso denbora gutxi zegoen erreakzionatzeko. Izan ere, denbora oso garrantzitsua zen, eta proiektuaren arrakasta faktore horri lotuta zegoen, neurri handian.
- b. Hori dela eta, plangintza egiteko denbora astebetekoa izan zen, eta inplikaturako pertsonak Mahaiko dinamizatzailea eta Gizarte Zerbitzuak koordinatzailea baino ez ziren izan.
- c. Plangintzaren gakoetako bat denbora izan bada, bestea aniztasuna izan da. Aniztasuna funtsezkoa izan da hasieratik. Ahalik eta bizipen eta kontakizun kopururik handiena eta askotarikoena lortzeko, ezinbestekoa zen askotariko pertsonengana hurbiltzea (aniztasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobeto), hots, herritarrak hurbiltzea eta ahalik eta errealitate gehien ezagutzea, hori baita, azken batean, Aniztasun eta Bizikidetza Mahaiaaren helburuetako bat haren ohiko funtzionamenduan.
- d. Profil desberdinetako hainbat pertsonaren zerrenda egin dugu, haiekin harremanetan jarri gara, eta programan parte hartzera gonbidatu ditugu, baita herritarrak ere.
- e. Landutako gaiak Mahaian parte hartu duten pertsonen alde aurretik adostutakoak izan dira. Proposatutako gaiak askotarikoak izan dira, hala nola etxebizitzaren egoera, bakardadea eta adinekoak.

2.- INPLEMENTAZIOA

- a. Elkarrizketatuen zerrenda zehaztu ondoren, galderak profil bakoitzera egokitu dira eta elkarrizketak egin dira. Astean programa bat egin da, eta batez beste 4 pertsona elkarrizketatu dira programa bakoitzean.
- b. Grabazioak etxetik eta telefonoz egin dira, eta etxean editatu dira, baliabide apalekin. Ondoren, webgunearen eta sare sozialen bidez zabaldu dira. Lehen fasean, 6 kapitulu euskaraz eta beste 6 gaztelaniaz grabatu eta zabaldu dira.

3.- PARTE HARTZAILEAK

- a. Mónica Leiva, Udaleko Aniztasun eta Bizikidetza Mahaiko dinamizatzailea eta, aldi berean, kazetaria.
- b. Udaleko Gizarte Zerbitzuak, programa bakoitzari euskarria emateko eta zabaltzeko.
- c. Mahaiko kideak eta, oro har, udalerriko biztanleak, elkarrizketen eta kontakizunen protagonista gisa.
- d. Herritarrak, xede talde gisa.

4.- GARAPEN EGUTEGIA

- a. Proiektua diseinatu eta idaztea: martxoaren 23tik 31ra.
- b. Elkarrizketak planifikatzea eta haien egutegia egitea: martxoaren 23tik 31ra.
- c. Elkarrizketak grabatu eta ematea (lehen fasea): apirilaren 1etik maiatzaren 11ra.
- d. Proiektua baloratzeko bilera teknikoa: maiatzaren 25ean.
- e. Aniztasun eta Bizikidetza Mahaiaren balorazio bilera: ekainaren 18an.

9. Alderdi berritzaileak

Jarduera berritzailea izan da sortu zenetik. Aurretik inoiz bizi izan ez den errealitate batek (pandemiak) eragindako beharrei erantzuteko sortu zen proiektua. Izan ere, ezagutzen genituen eta ordura arte erabili genituen metodoek eta soluzioek ez zuten balio pandemian.

Ikuspegiak bereziki zabala izan behar zuen. Izan ere, herritar guztiei zuzenduta zegoen, eta abian jarri arte ez genekien zer jende motak entzungo zuen programa edo parte hartu nahi izango zuen bertan. Erabilitako metodoa azkarra, malgua eta moldagarria da. Izan ere, erantzunak azkarra izan behar zuen, baina konfinamendu egoerak lan egiteko modua ezartzen eta baldintzatzen zuen: urrunetik, kontakturik gabe, online...

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Ebaluazio kualitatiboa: Aniztasun eta Bizikidetza Mahaiaren foro birtualaren bidez egin da, eta proiektuko teknikariak dinamizatu du. Ebaluazio horretan, Mahaian parte hartu duten pertsonen eta kolektiboen iritzia bildu dira.

Iruzkina, iradokizunak eta balorazioak hainbat forotan.

Ebaluazio kuantitatiboa: zenbat aldiz entzun diren YouTubeko kanalaren bitartez.

11. Eranskinak eta estekak

Urretxuko Udalaren webgunea:

<https://urretxu.eus/es/accion-social>

YouTube:

https://www.youtube.com/channel/UCQ0bb3LhQUwxHq_hl_3bvxA/videos?view_as=subscriber